

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZALDUONDOKO UDALA

#### **Bake epaile titularren eta ordezkoren karguak betetzeko deialdia**

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluek xedatzen dutena betetzeko, herritar guztiei jakinarazten zaie udalbatzak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salari proposatuko diola bake epaile titular eta ordezko karguak betetzeko beharrezkoak diren pertsonak izendatzeko 4 urteko aldirako.

Botere Judizialaren Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, prozeduran parte hartzeko honako baldintza hauek bete behar dira:

- Adinez nagusia izatea.
- Nazionalitate espainiarra izatea.
- Ezgaitasun edo bateraezintasunen bat ez izatea (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikulua eta 389. artikulutik 397. artikulura eta 3/1995 Arautegiaren 23. artikulua).

Interesdunek Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera; horretarako, hogeita hamar egun natural izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

1. NANaren fotokopia edo haren baliokidea.
2. Zigor aurrekarien ziurtagiria.
3. Zinpeko adierazpena, honako hauek jasotzen dituenak:
  - a) Ez dela doluzko delituengatik kondenatua izan edo, hala badagokio, errehabilitazioa lortu duela.
  - b) Ez dagoela prozesaturik edo erruztaturik dolozko delituagatik, edo, hala badagokio, auzi-petua izan den kausan absoluzioa edo artxibatze autoa eman zaiola.
  - c) Eskubide zibil guztien jabe dela.
  - d) Ez dagoela fisikoki edo psikikoki ezindurik epaile eginkizunetarako.
  - e) Ez dagoela Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikuluan eta 389tik 397ra arteko artikuluetan eta 3/1995 Erregelamenduaren 23. artikuluan xedatutako ezgaitasun edo bateraezintasun kausaren baten eraginpean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Zalduondo, 2025eko otsailaren 13a

*Alkatea*  
**LURDES LEKUONA LABURU**